



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismo Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



donostia sustapena
fomento sansebastián

Eguzki-kargagailu adimentsua jarri da Igentea kalean, SmartKalea proiektuaren esparruan



- Lau gailu mugikor batera kargatzeko balioko du (telefonoak, tabletak, e.a.)
- Eguzki-energia fotovoltaikoarekin elikatzen da
- Eguneko 24 ordutan erabili ahal izango da

Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak eta iPlay enpresak, Donostiako Sustapenaren SmartEnergy Klusterreko kideak, kargagailu adimentsua ezarri dute SmartKalea proiektuaren esparruan aurreikusitako ekintzen barnean, “iraunkortasuna sustatzeko, to

kiko enpresen proiektu berritzaileak babesteko eta hiriko SmartKalea proiektua eta SmartCity estrategia ezagutzera emateko” helburuarekin, Ernesto Gasco zinegotziak adierazitakoaren arabera. “SmartKalea proiektua emaitza oso interesgarriak izaten ari da, eta inpaktu handia sortu du nazioarteko foroetan”, nabarmendu zuen Gascok.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Biztanle gehienek **telefono** edo **gailu mugikor** bat dute. Eta haien eragozpen handienetarikoa bat **bateria berehala agortzea denez**, komunikatzeko aukerarik gabe geratzen dira. Era horretan, **sistema honi esker, smartphonea edo tableta edonork** erraz eta modu erosoan karga dezake espazio publiko batean.

Instalatu den ekipoa (Usbe) **eguzki-kargagailu bat da, erabat autonomoa**, sare elektrikora konektatu beharrik ez dagoena. Eguzki-kargagailua diseinatzerakoan, zuhaitz batean inspiratu dira, elementu ekologiko garrantzitsua bezala; horren azpian mugikorak eta pertsonak babesten dira, eta itxura soila hartzen dute. Egitura hasteko, metalezko zilindroa (enborra), bi eserleku eta masta inguratzen duen mahaia jarri dira (eraztun edo hirusta eran). Goiko aldean aterki zirkular zeharrargia jarri da, SmartKalearen diseinu propioarekin, eta horren gainean **panel fotovoltaikoa** aurkitzen da.

Gailuaren oinarria altzairu herdoilgaitzezkoa da, eta lau USB ataka ditu; beraz, **4 gailu mugikor batera eta doan karga daitezke energia iraunkorrarekin** (mugikorak edo tabletak). Denborarik gehiena eguzki-erradiazioaren aurrean aurkitzen denez, Usbe-aren bateriak erabat kargatuta egongo dira; berriz kargatzeko 24 orduko autonomia baitute. Gainera, **bandalismoaren aurkako diseinua du, eta mugikortasun murriztuko pertsonentzat egokituta dago**.

Usbe eguzki-kargagailu adimentsuak **energia elektrikoaren kontsumo publikoa murriztea sustatzen du**, energia garbia eta berriztagarria erabiliaz. Eguzki-energia fotovoltaikoa transformatzeko, eguzki-panela erabiltzen da energia elektrikoan, eta gailu mugikorak kargatzeko aprobetxatzen da USB ataken bitartez. Energia hori bateria batzuetan gordetzen da, pilatuta mantentzearen; hortaz, sistema horrek **inolako arazorik gabe funtziona dezake aurkako baldintza klimatikoetan, gauez edo zerua estalita dagoenean**.

Ezaugarri orokorrak:

2,5 m-ko altuera

250 kg-ko pisua

1,5 m-ko diametroko eguzkitako gardena, SmartKalearen serigrafia propioarekin.

Kargatzeko 24 orduko autonomia lau mugikor eta/edo tabletarentzat.

%100 autonomia, kanpoko elektrizitate-konexiorik gabe.

Mahai bikoitza gailu mugikorren euskarri gisa.

30W-ko panel fotovoltaikoa.

12V-ko bateria eta 18Ah armairu antibandalikoan.

4 USB modulu eme gailu mugikorak kargatzeko.

2 eserleku urdin.

Identifikatzeko eranskailua.

Gaueko argia.

Gainera, Usbe eguzki-kargagailuak aukera izango du smart zerbitzu ezberdinak, **QR kodeak** edo **Geomarketing** aplikazioak sartzeko, ekipoak adimen handiagoa izan dezan.

SmartKalea proiektuaren helburua da, era horretako ekimenen bidez, ondorengoak sustatzea: iraunkortasuna, berrikuntza teknologikoa, energia-eraginkortasuna, herritarren



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

parte-hartzea, hiriko garapen ekonomikoa eta gardentasuna, teknologia berritzailea erabiliaz. Eta hori guztia lankidetzan publiko-pribatuko ereduaren oinarritzen da. Besteak beste, honako hauek hartzen dute parte: Udaleko sail ezberdinek Donostiako Sustapenak koordinatuta, enpresa eta kolaboratzaile teknologikoek, saltokiek eta ostalaritzak eta herritarrek.

Orain arte, jarduera horiek Donostiako Kale Nagusian gauzatu dira. SmartKalea proiektua Alde Zahar osoan eta Altza auzoan hedatu nahi da (Gipuzkoako Foru Aldundiaren baterako finantzaketarekin), aldi berean jarduera berriak sartuta Smart eremuan.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosanbastian.eus